

59. FITXA Euskal Kultura Ondare Immateriala babestearen arlora bideratutako lanak egiteko dirulaguntzak

Nori zuzendua: pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak, publiko zein pribatuak, baldin eta EAEn garatzen badituzte deialdi honetan diruz laguntzen diren jarduerak

Sarbide-esteka: [Euskal Kultura Ondare Immateriala babesteko lanak egiteko dirulaguntzak \(2024-2025\) - Eusko Jaurlaritzaren \(euskadi.eus\)](#)

Erreferentziak: [AGINDUA, 2024ko irailaren 6koa, Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2024-2025 aldirako dirulaguntzetarako deialdia egiten duena, Euskal Kultura Ondare Immateriala babestearen arlora bideratutako lanak egiteko](#)

Eremuak: Kultura

Zenbatekoa: 200.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/10/17

Laburpena

Deitutako laguntzen xedea da **euskal kultura-ondare immaterialaren balioa nabarmentzeko** eta haren berri zabaltzeko xedea duten proiektuak eta jarduerak gauzatzea EAEn, barne hartuta kultura-ondare immaterial horri berezkoa zaion ondare materiala.

Diruz lagundu daitezkeen lehentasunezko proiektuetatik joko dira **aitortutako ondasunak** hizpide dituzten eta, indarreko legeri jarraikiz, babes-erregimena duten edo Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren erreferentziako ondare-inbentarioetan jasota daudenak.

Kultura-ondare immaterialtzat joko da bakarrik giza eskubideen arloan dauden nazioarteko tratatuekin eta komunitateen, taldeen eta gizabanakoen arteko elkarrekiko errespetuaren aginduekin bateragarri dena.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu ahal izango dira **euskal kultura-ondare immateriala babesten eta zaintzen laguntzen duten dokumentazio-, ikerketa-, erregistro- eta sustapen-proiektuak**, betiere Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 11. artikuluan zerrendatutako hamaika kategorietako batean sailkatuta dauden ondasunei buruzkoak badira.

Agindu honen esparruan, honako jarduera hauek lagundu ahal izango dira diruz:

- Euskal Autonomia Erkidegoko adierazpen kultural immaterialen **ikerketa-, dokumentazio-, erregistro- eta inbentario-proiektuak**, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak aurretik egin ez dituenak. Inbentarioak egiteko, ondare immaterialaren fitxa-ereduarekin lan egingo da, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak kontrastatuta.
- Interesekoak diren kultura-ondasun immaterialen **egoeraren analisia eta diagnostikoa egitea**, barne hartuta ondasun hori mantentzearekin eta sustatzearekin lotutako jarduketaren proposamenak eta lehentasunak.
- Kultura-ondasun immaterialak **kudeatzeko eta zaintzeko planen aurreko dokumentuak egitea**.
- Euskal kultura-ondare immaterialaren edozein adierazpenen **transmisioa areagotzera bideratutako proiektuak**, adierazpena mantentzearen aldeko ekarpena egiten badute
- **Ondare immaterialaren ezagutza zabaltzen eta hobetzen** laguntzen duen edozein jarduera, hala nola kongresuak, erakusketak, topaketak, tailerrak, etab.
- Ondare immateriala eta haren komunitate sostengatzaileak zaintzen eta babesten laguntzen duten **beste jarduera batzuk**.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak **2024ko urtarrilaren 2tik 2025eko urriaren 6ra bitartean** gauzatzen direnak izango dira.

Laguntzen zenbatekoa

Onartutako aurrekontuan sartuta dauden diruz laguntzeko moduko gastuen ehuneko ehun (% 100) hartu ahal izango dute dirulaguntzek, proiektu bakoitzeko **30.000 euro** gainditu gabe.